

"Hemendik aurrera ez da inor nire jabe izango, gaur kontrolatuko naiz, gaur bai" esan ohi zuen egunero, ondoren tabernara joan, whisky bat eskatu eta hurrengo egunean utziko zuela esaten zion bere buruari. Benetako bakardadea bizi zuen, bere penak edaritan hondoratuz, alkohol tanta bakoitza malko tanta bat izango balitz bezala. Gaur bere semeak 9 urte izango zituen, egun hartan autoa hartu baino lehen edan izan ez balu. Egunero istripu horien irudiak ahazten zituen alkoholetan. Gaur lanera bidean bere alaba eta emaztearekin, alaba eskolan utzi eta bazkaldu ondoren, taberna batera sartu eta kafe deskafeinatua eskatu zuen. Whiski botila pare-parean zuela, botila osoa erosi zion zerbitzariari, amildegia batera hurbildu, eta hainbeste urtetako sufrimendua garrasi batean botatzearekin batera, botila airean nola joan den ikusi du, noiz puskatuko den zain geratu da.

Amaiur Sarriegi